



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

LANA ETA ENPLEGUA

1. Gizarte-ekonomiako enpresetan Laguntza Teknikoa 2021	2
2. Ekitea 2020.....	4
3. Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak 2021	7
4. Emakumeen ekintzailera sustatzea eta enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzera helburu duten erakundeentzako diru-laguntzak	9
5. Elkarte Egiturak babestea	11
6. Gizarte Ekonomiako enpresetan Bazkideak sartzera.....	13
7. Enpresen arteko Lankidetzak	15
8. Gizarte Ekonomiako langileen benetako Partehartzea	17
9. Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE).....	19
10. Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2021eko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik	21
11. Gizarte Segurantzaren sisteman ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak ematea ARCELORMITTAL enpresa berregituratzeko prozesuak eragindako langileei, 2021eko ekitaldirako.....	23
12. Diru-laguntzak enpresarien elkarrekin eta erakunde sindikalei beren jardueraren eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten	24
13. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak izan behar duten erakunde sindikalei 2021eko ekitaldirako diru-laguntzak ematea	26



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresetan Laguntza Teknikoa 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza tekniko emateko dirulaguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza tekniko emateko dirulaguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira laguntza teknikoko ekintzatzat:

- a) Urteko Kudeaketa Plana edo Aginte Koadro Integrala egitea eta ezartzea.
- b) Plan estrategikoa egitea eta ezartzea.
- c) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek aldeztu behar den azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, euren erakunde elkartuei bermeak emateko.
- d) Kooperatibek eta lan-sozietateek merkataritza-kudeaketarako berriaz emandako aholkularitza.
- e) Kudeatzailetzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea, kudeatzaileen edo zuzendarien egitekoetan laguntzeko, edo kooperatiba eta lan-sozietateetako jardun-arloekin zerikusia duten zerbitzuak
- f) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea, gomendio zehatzak barnean hartuta enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.
- g) Erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea.
- h) Gizarte-ekonomiako enpresek digitalizazio eta ingurumen esparruetan dituzten beharren gaineko diagnostiko bat egitea.
- i) Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea.
- j) Gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketa planifikatuan ingurumenari lotutako sentsibilizazio-ekintzak ezartzea, prestakuntza-ekintzak barne, ingurumenaren jasangarritasuna hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartearen

2021ean lortutako emaitzak:



Kudeaketa aurreratuko tresnaren esparruan: 67 dirulaguntza eskaera aurkeztu dira, eta horiei esker 83 kudeaketa-tresna egin eta ezarri ahal izan dira, honela banatuta:

- Merkataritza-kudeaketarako berariazko aholkularitza: 25
- Urteko kudeaketaren Planak / Aginte Koadro Integrala: 31
- Plan estrategikoa: 2
- Kudeatzerako laguntza: 15
- Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plana: 8

Halaber, gizarte-ekonomiako enpresako elkarte-egitura biei dirulaguntzak eman zaizkie bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomiko eta finantzarioak egiteko, haiekin elkartutako entitateei bermeak emateari begira.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 250.000 euroko zenbatekotik, guztira 249.905 euroko laguntzak (%55) onartu dira. Izan ere, onarpen-eskaerak 315.000 eurotik gorakoak izango ziren, beraz, banaketa Agindu arautzaileak zehaztutako lehentasun-hurrenkeraren arabera egin behar izan zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreik.</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako kudeaketa-planen kopurua	25	21
Plan estrategikoak	20	2
Aginte Taula integrala	10	0
Merkataritza-kudeaketako aholkularitza diruz lagunduen kopurua	10	10
Kudeatzailtzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak	5	25
Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak	5	8
Erakundeak eraldatzeko tresna berriak	3	15
Gizarte ekonomiako enpresetan digitalizazioaren eta ingurumenen beharrezkoei buruz diagnostikoa	5	0
Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea	15	0
Diruz lagundutako gerentzia-zerbitzuen kopurua	1	0
Bermeei buruzko azterlana partzialki diruz lagundutako enpresen kopurua	15	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekitea 2020

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak iragarri eta arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak iragarri eta arautzen dituena.

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1. Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, izaera hori ez duten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barnean hartuta.
2. Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotuta dauden sustapen-ekintzak egitea, osteko jarraipena eta enpresa-kudeaketarako doako aholkularitza barne direla, enpresaren jarraipena sustatzeko eta horri eusteko helburuarekin, enpresa inskribatu eta urtebeteko epean.
3. 2021ean, ikasketak egitea, gizarte-ekonomiako enpresa bat sustatzeko helburuarekin
4. Ideien lehiaketak diseinatzea eta egitea, gizarte-ekonomian espiritu ekintzailea sustatzeko eta enpresaren kultura zabaltzeko.
5. Ekintzailatza gizarte-ekonomian sustatzeko berriazko foro bat diseinatzea, antolatzea eta gauzatzea.
6. Gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako ekintza-plan bat landu, garatu eta gauzatzea, agindu honen 24. artikuluko eskakizunei jarraikiz. Gizarte-ekonomiako enpresen oinarriak laneko parte hartzea, aberastasuna sortu eta orekaz banatzea, eta enplegua sortzea izango dira. Ekintza-planen erakunde egileek, berriz, eskualde-oinarriko lurralde-eremu jakin batean finkaturiko hezkuntza-erakundeen eta gizarte-ekonomiako enpresen parte hartzea izan beharko dute, alde batetik, eta, bestetik, erakunde horiek enpresa-mintegi bat bermatzeko adinako egitura izan beharko dute eskura, 24. artikuluan araututako ekintza-plana aplikatzeko.
7. Lanbide-heziketa enpresaren xedea osatzen duten zereginetan edo lan-trebakuntza hobetzeko zereginetan.
8. Enpresa-kudeaketako tresnen ezarpena, era honetako tresnetan langileei eman beharreko prestakuntza barne.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean lortutako emaitzak honako hauek izan dira:

Guztira 338 eskaera aurkeztu dira programa honetan sartzeko, eta horietatik 324 onartu dira.

175 enpresa-proiekturi eman zaie laguntza, 594 enplegu berri sortuz, eta horietatik 207 (%34,85) emakumeak ziren.

Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko 5 entitate sustatzailek garatutako sustapen-jarduerak finantzatu dira.

Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokienez, sustapeneko 4 nodo-entitateen lanari lagundu zaio eskualdeko eremuan.

Bideragarritasun-azterlan bat egiteko dirulaguntza eman da, egoera larrian dauden baltzuak ekonomiako enpresa bilakatzeko.

«Gizarte-ekonomiako enpresak finkatzeko laguntzak» izenburupean sortutako bi ildoek dagokienez, gizarte-ekonomiako enpresen elkarte-erakunde bi izan dira horien onuradun.

Aurrekontuzko egitea:

	Aurrek.	Eginda	%
Gizarte-ekonomiaren enpresak sortzeko dirulaguntzak	2.200.000	2.221.830	%101,00
Entitate sustatzaileko dirulaguntzak			
Bideragarritasun azterlanak			
Lurralde Sustapen Planerako dirulaguntzak	280.000	258.000	%92,14
COVID19 pandemiaren aurka dirulaguntzak	315.000	308.438	%97,92
TOTAL	2.795.000	2.788.268	%99,76

Erabilgarritasuna eta eragina gizartean: Programa hau Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren garrantzitsuena da, kualitatiboki eta kuantitatiboki. Argi dago diru-laguntzen programa hau oso lagungarria dela gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko, bai kooperatibei dagokienez, bai lan-sozietateen formari dagokionez. Izan ere, sozietate berriak sortzeko parametroak egonkor mantendu dira azken urteotan, eta enpresa-jarduera berriak eta lanpostu berriak sortu dira. Diru-laguntzen Agindu honen barruko gainerako laguntza-lerroek, enpresa berriak eratzearenak baino pisu txikiagoa izan arren, eraginkortasunari eta efizientziari eutsi diote Zuzendaritza honen iritziz.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreik.</u>	<u>Emaitza</u>
Sortutako kooperatiben eta lan-sozietateen kopurua	150	175
Enplegua sortzea	500	594
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua	4	5
Enpresetan egindako bideragarritasun-ikerketen kopurua	10	1
Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak	4	4
Sustatutako lehiaketa kopurua	2	2
Egindako bilera-kopurua	1	0
Diruz lagundutako tresnak	25	2
Prestakuntza jaso duten lan-bazkideko enpresen kopurua	500	192



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak 2021

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzarako laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

- 1) Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzara bideratutako ekintzak –prestakuntza espezifiko eta desberdindua–, unibertsitate-eremuan, unibertsitate aurreko eremuan edo sozietateen eremuan kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko hasierako ezagutza lortzeko edo perfektionatzeko edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko.
- 2) Kooperatibei eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak editatzea.
- 3) Aldian behingo jardunaldiak egitea.
- 4) Ekitaldi bereziak egitea gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen ikusgaitasuna bultzatzeko, hala nola oroipen- edo omenaldi-egunak, sari berezien banaketa eta antzeko ekitaldiak.
- 5) Gizarte-ekonomiako zabalkunde-jarduerak egitea. Halakotzat hartuko dira: gizarte-ekonomiako informazio-jarduerak eta beste lurralde-eragile batzuekiko alderaketa, eta zabalkunde-jarduerak hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, Internet eta multimedia.
- 6) Gizarte-ekonomiako ikerketa-jarduerak, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren iritziz euskal gizarte-ekonomia garatzeko berriak eta erabilgarriak direnak. Gazteei, generoari eta ingurumenari loturiko gizarte-ekonomia lantzen dutenak lehenetsiko dira.
- 7) Gizarte-ekonomiarekin zerikusia duten materialen katalogo digitalerako gordailu bat egitea (proposamen didaktikoak, ikerketak eta antzekoak), lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitate aurreko hezkuntzan doan zabaltzeko



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean lortutako emaitzak:

17 dirulaguntza eman zaizkie hainbat entitate eskatzaileari. Dirulaguntza jaso duten proiektuek honako kopuru batzen dituzte aurrekutzutako jarduera eta jardunak gauzatzeko:

- Gizarte-ekonomiako berariazko prestakuntza berezia emateko ekintzak: prestakuntza hori 1.000 pertsona baino gehiagok jaso dituzte.
- Kooperatiben eta lan sozietateen gaineko aldizkako argitalpenak editatzea: diruz lagundutako 11 argitalpen.
- Aldizkako jardunaldiak egitea: 5 jardunaldia Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntza publikoa izan zuten.
- Ekitaldi bereziak egitea gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen ikusgaitasuna bultzatzeko: 3
- Zabalkunde-jarduerak hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia: 2
- Dirulaguntza jaso duten ikerketa-proiektuak: 4
- Katalogo digital: 1

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 697.000 euroko zenbatekotik, guztira 560.814,25 euroko laguntzak (%80,46) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurrek.</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza jasotako ikasleen kopurua	1.000	1.000
Egindako jardunaldien kopurua	20	11
Diruz lagundutako argitalpenen kopurua	8	5
Egindako ekitaldi berezien kopurua	3	3
Diruz lagundutako zenbat zabalpen-ekitaldi egin diren	10	2
Egindako ikerketen kopurua	5	4
Katalogo digitala	3	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen ekintzailtza sustatzea eta enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeari helburu duten erakundeentzako diru-laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2021eko maiatzaren 18koa, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, emakumeen ekintzailtza sustatzeko eta enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeko helburuz diharduten erakundeetako 2021erako diru-laguntzak emateko deialdia egin eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Arauk deialdi hau jasotzen du:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/emakumeen-ahalduntzea-dirulaguntzak/web01-tramite/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa emakumeen ekintzailtza sustatzen eta enpresetako eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeko lagunduko duen beste tresna bat da.

Bereziki:

- Emakumeen ekintzailtza sustatzea eta emakumeak buru dituzten enpresak edo enpresa berriak suspertzea.
- Emakumeak enpresa-zuzendaritzan eta zuzendaritza-organo eta -postuetan sar daitezela laguntzea.
- Emakume enpresaburuen eta/edo zuzendarien asoziazionismoa garatzea
- Erakundeen eta emakumeen arteko lankidetzaren sareak sortzea, haien parte-hartze soziala eta elkarrekin-laguntza erraztuz
- Enpresaburuen, zuzendarien eta profesionalen ikusgaitasuna sustatzea erabaki-eremuetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Agindu honetan jasotako laguntzak aurreikusitako elkarrekin-laguntza mantentzeko eta finkatzeko egitura-gastuak finantzatzeko dira, elkarrekin-laguntzari legez eta estatutuen arabera esleitutako helburuak betetzeko.

Diru-laguntza programaren aurrekontua 2021ean 100.000,00 €-koa izan zen, honela banatuta: Diru-laguntzen lerroak eta esleitutako zenbatekoak.

1. ildoak: erakundeen jarduerak eta jarduerak-eremua (sareko lana, ikusgarritasuna, zabalkundea, jardueren jarraipena, etab.) Oinarrizko zenbatekoa eta zenbateko aldakorra (95.000,00 €)



2. lerroa: bazkideen ordezkaritza txikiena eta/edo finantza-nahikotasun txikiena duten erakundeen hazkundera bultzatzea. Zenbateko aldakorra (5.000,00 €).

5 erakunderi eman zaizkie diru-laguntzak, 99.999,99 €-ko zenbatekoarekin.

Diru-laguntzen lerroaren erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, Lan eta Enplegu Sailak enpleguaren ikusmolde zabalari eusten dio, eta arreta berezia eskaintzen dio emakumeak ekonomia- eta lan-jardueran baldintza berdinetan txertatzea indartuko duten neurriak ezartzeari; halaber, ekintzailatza modu integralean erraztea du helburu, gure gizartearentzat duen garrantzi estrategikoari balioa emanez. Emakume-elkarteen jarduerari eusteak aukera ematen du emakumeek bultzatutako ekintzailatza-proiektuak ugaritzera bideratutako estrategia bat inplementatzeko eta enpresen zuzendaritza-organoetan pixkanaka sartzeko. Ildo horretan, genero-ekitatean aurrerapen nabarmena ikusten da jarduera ekintzaile finkatuan (% 49,6 emakumeak eta % 50,4 gizonak 42 hilabete baino gehiagoko proiektuetan), nahiz eta aldeak oraindik nabarmenak diren ekintzailatzaren hasierako faseetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Erakunde onuradunak	6	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarte Egiturak babestea

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte-egiturak finkatzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte-egiturak finkatzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Gizarte Ekonomiako erakundeen elkarte Egiturak finkatzea:

- a) Lan sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
- b) Lan elkartukoez bestelako kooperatibak eta elkarte konfederalak.
- c) Ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu zentru berezien elkarteak.
- d) Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean lortutako kopuruak:

Gizarte Ekonomiari lotutako Euskadiko 8 elkarte Egitura mantentzen lagundu ahal izan da. Zehazki, honako hauek izan dira:

- Lan elkartuko kooperatiben federazio 1.
- Lan sozietateen talde 1
- Lan elkartukoez bestelako kooperatiben 2.
- Ekonomia solidarioko elkarte 1.
- Enplegu zentru berezien 2 elkarte.
- Langile autonomoei lotutako 1 elkarte.



Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 685.800 euroko zenbatekotik, guztira 618.359 euroko laguntzak (%90,2) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Diruz lagundutako elkarte eta erakunde kopurua	11	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomiako enpresetan Bazkideak sartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako hau da: bazkide langileak edo lan bazkideak Gizarte Ekonomiako enpresetan sartzeko laguntzea, epe jakin batean (2020ko irailaren 1etik 2021eko ekainaren 30ra bitarte). Lau motako hartzaileak daude:

- a) Kooperatiba edo lan sozietate batean sartzeko diren langabeak, dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez hiru hilabeteko antzintasunaz inskribatuta egon behar dute.
- b) Bazkideak ez diren langileak, besteren konturako lan kontratuarekin.
- c) Desgaituak.
- d) Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiatzearen eta ustiatze mistoen titularrak, beti ere nekazaritza kooperatibetan bazkide gisa sartu badira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Kapitalari egindako ekarpenetarako dirulaguntza partzialak emanda, gizarte-ekonomiako enpresetan 246 bazkide langile (horietatik 74 emakumeak dira) sartzeko lortu da, honako banaketa honekin:

- Horietatik 2 bazkide langabezia-egoeratik sartu dira.
- Besteren konturako 136 langilek dirulaguntza jaso dute gizarte ekonomiako enpresaren bateko bazkide langile edo lan bazkide bilakatu direnean.
- Desgaitasunen bat duten 48 pertsona laguntza publikoa jaso dute gizarte ekonomiako enpresetan bazkide langile gisa sartu direlako.



- Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietako 60 titularrek ere diru laguntza jaso dute nekazaritza kooperatiba batean sartzeagatik.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 400.000 euroko zenbatekotik, guztira 395.465 euroko laguntzak (%98,87) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Pertsona langabeak	5	2
Desgaitasunen bat duten pertsonak	50	48
Nekazaritza ustiategien titularrak	30	60
Besteren konturako langileak	150	136



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen arteko Lankidetzeta

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Baldintzak erregulatzen dituen Arauak deialdia darama.

Araua: AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

Entitate onuraduneko zerrenda BOPV-an argitalpenaren zain dago.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Gizarte Ekonomiako enpresen adierazgarri diren elkarteek beren bazkideentzat Lankidetzeta proiektus lantzea eta ezartzea.
- b) Akordioak landu eta formalizatzea eta enpresen arteko Lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzea, Gizarte Ekonomiako enpresek bat egiteko beharrezkoak direnak barne.
- c) Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea prestatzea eta formalizatzea.
- d) Gizarte-ekonomiako erakundeek bat egin ondoren enpresaren batean bazkide langile gisa sartu diren pertsona fisikoek kapital sozialari egindako ekarpena. Bat egindako edo xurgatutako erakundetik ez datorren kapital soziala bakarrik hartuko da kontuan.
- e) EAeko gizarte-ekonomia ordezkatzeko duten erakunde gorenek beren bazkideentzat egiten dituzten lankidetzeta-jarduerak, 2.1.a) artikuluan zehaztutako helburuetako bat betetzea ahalbidetzen edo errazten dutenak, bai eta elkartekideen artean elkarlanean diseinatutako mekanismoak eta tresnak ezartzea ere.

Aurrekontuaren exekuzioa: diru-laguntza emateko aginduan aurreikusitako 150.000 euroetatik 129.410 euroko diru-laguntzak eman ziren (% 84,9).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresen arteko Lankidetzarako proiektuak eta haien ezarpena: 6
- Enpresen arteko Lankidetzarako bideragarritasun azterlanak. 3
- Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea: 0
- Bazkide langile gisa sartu diren pertsona fisikoek kapital sozialari egindako ekarpenerako dirulaguntzak: 0
- Elkartekideen artean elkarlanean diseinatutako mekanismoak eta tresnak: 5

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 150.000 euroko zenbatekotik, guztira 129.410 euroko laguntzak (%84,9) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuetako kopurua.	15	6
Akordio-kopurua eta kolaborazioak diruz lagundutakoak	5	3
Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea	-	0
Bazkide langile gisa sartu diren pertsona fisikoek kapital sozialari egindako ekarpenarako dirulaguntzak	-	0
Elkartekideen artean elkarlanean diseinatutako mekanismoak eta tresnak	-	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomiako langileen benetako Partehartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 28koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2021eko uztailaren 13ko Aginduak xedatutako laguntzen onuradunen zerrenda; agindu horren bidez, enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzeko dirulaguntzak arautzen dira.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

Gizarte-ekonomiako enpresetan

- a) Horien gastuak langileek Gizarte Ekonomiako Enpresen kudeaketan eta organoetan parte hartzeko bideak errazten eta hobetzen dituzten metodoak eta tresnak sortzeko eta ezartzeko erabiliko dira.

Gizarte-ekonomiako ez diren enpresetan

- a) Langileen parte-hartzea bideratzeko plan bat prestatzea eta ezartzea. Erakunde aholkulariaren laguntzarekin eta aholkuarekin egingo da plan hori.
- b) Langileek enpresetan parte hartzeko ereduak definitzeko tresnak diseinatzea.
- c) Partaidetzapeko enpresaren eredu hedatzeko jarduerak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Kudeaketan eta organoetan parte hartzeko bideak errazten eta hobetzen dituzten metodoak eta tresnak: 10
- Langileen Partehartzea sustatzeko eta arlo horretako jardunbide egokiak zabaltzeko azterlanak: 1
- Langileek enpresetan parte hartzeko ereduak definitzeko tresnak: 1
- Partaidetzapeko enpresaren eredia hedatzeko jarduerak: 1

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 140.000 euroko zenbatekotik, guztira 66.183 euroko laguntzak (%47,27) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Partehartzea sustatzeko politikak diseinatzeko azterketak	5	10
Enpresetako Partehartze planak	3	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE)

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira enpresen gizarte-erantzukizuna Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 29koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira enpresen gizarte-erantzukizuna Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 21ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariena. Honen bidez argitaratzen da 2021eko ekainaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko dirulaguntzak arautzen dira).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Enpresen Gizarte Erantzukizuna ezartzea enpresetan, jasangarritasun-memoriak eginez. Jasangarritasun-memoriek GRI, SG21, ISO2300 metodologiari edo gisakoei jarraitu beharko diete. Kontabilitate sozial aplikatuko azterketak egitea ere diruz laguntzeko moduko jarduketa-tzat jotzen da.
- b) Tresnak eta formularioak prestatzea ebaluazio-diagnostiko bat egiteko, ahalbidetuko duena jakitea gizarte-ekonomiako enpresa jakin batek zer ekarpen egiten dien garapen jasangarrirako helburuei (GJH).
- c) Diagnostia egitea jakiteko enpresek zer ekarpen egiten dieten garapen jasangarrirako helburuei (GJH); horretarako, gizarte-ekonomiako enpresentzat berariaz diseinatutako tresnak edo formularioak erabiliko dira.
- d) Enpresen gizarte-erantzukizunaren kultura eremu publikoetan, enpresarialetan eta korporatiboetan zabaltzeko jarduerak.

Jarduera nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten entitateek eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak, zehaztaperen hauei jarraikiz:



1. Enpresa txikiak eta ertainak, 2.a) artikuluko jardueretarako.
2. Gizarte-ekonomiako enpresa eta entitateetako familien artetik ordezkartza handiena duten sozietate-entitateak, 2.b) artikuluko jardueretarako.
3. Gizarte-ekonomiako enpresak, 2.c) artikuluko jardueretarako.
4. Unibertsitateak, enpresaburuen elkarteak eta enpresen gizarte-erantzukizunaren sustapenean edo kudeaketa aurreratuan espezializatutako entitateak, 2.d) artikuluko jardueretarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresetan EGEa ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) iraunkortasun memoriak lantzearen bidez: 13
- Tresnak eta formularioak prestatzea ebaluazio-diagnostiko bat egiteko: 2
- Enpresetan Ebaluazio-Diagnostiko bat egitea: 0
- EGE-aren kulturaren difusioa: 7

Aurrekontu-betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 150.000 euroko zenbatekotik, guztira 121.309 euroko laguntzak (%80,9) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ezarritako iraunkortasun memoriak	20	13
Tresnak eta formularioak	-	2
Ebaluazio-Diagnostiko	-	0
EGE-aren kulturaren difusioa	5	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2021eko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik

2.- Araua

237/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskunde Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituena.

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 10koa, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuarena. Honen bidez hasiera ematen zaio azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako hauteskunde Sindikalen Batzordeko eta Lurralde Batzordeetan Partaide diren, bai eta dekretu honetan Araututako Ikuskaritza-Erregimenean parte hartzen duten sindikatuei ere, sindikatuetzako 2021 urterako diru-laguntzak emateko prozedurari.

AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuarena, zeinaren bidez 2021. urterako diru-laguntzak ematen baitzaizkie Sindikatu Hauteskunde Batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei, bai eta azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako ikuskapen-araubidean parte hartzeagatik ere.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2000/12/0005772a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103270e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104686e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen Batzordean eta Lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diru-laguntza horietarako guztizko kreditua 722.873,00 eurokoa da, banatu da lurralde-batzordeak eta Hauteskunde Sindikalen Batzordea osatzen duten erakunde sindikalen artean.

Diru-laguntza horien bidez, lau sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoan 2021ean egindako hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko dituzten eginkizunak garatzeko egiten duten jardura finantzatu da, bai eta lurralde-batzordeetan eta Sindikatu Hauteskunde Batzordean parte hartzea ere.

2021. urtean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak hauteskunde-prozesuen jarraipena egin dute, langileen eskubideak bermatzeko.



Aurrekontu Programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera egitea eta hauteskunde-prozesuen jarraipena egiteko 1.200 jarduketa egitea aurreikusita zegoenez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera indartzeko helburua bete dela esan daiteke.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean presentzia aktiboa izateak eta hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko lanetan parte hartzeak prozesu horiek eta lortutako emaitzak behar bezala egiten direla bermatzen dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Gizarte Segurantzaren sisteman ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak ematea ARCELORMITTAL enpresa berregituratzeko prozesuak eragindako langileei, 2021eko ekitaldirako

2.- Araua

Ebazpena, 2021eko irailaren 24koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, urtarrilaren 10eko 3/2014 Errege Dekretuan aurreikusitako Gizarte Segurantzako sistemako erretiro arruntaren aurreko laguntzei buruzkoa, 2021ean laguntza horiek eskuratzen dituzten langileentzat, ARCELORMITTAL OLABERRIA-BERGARA S.L.U. enpresak eskatuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Ebazpena ez da EHAAn argitaratzen. Eskumen hori Transferentzien Bitariko Batzordeak 2020ko ekainaren 25ean hartutako Erabakian hartu zen, eta uztailaren 14ko 90/2020 Dekretuaren bidez onartu zen (uztailaren 15eko EHAA).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002767e.shtml>

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-880

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak berregituraketa-prozesuetan sartuta dauden langileei ekonomikoki erantzuteko dira, urtarrilaren 10eko 3/2014 Errege Dekretuak (urtarrilaren 29ko BOE) ezarritakoaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurreikusitako laguntzen hasierako aurrekontua 277.746,00 €-koa izan zen, baina azken zenbatekoa 558.800,20 €-koa izan zen, aurreikusita baitzegoen azkenean bete behar izan diren diru-laguntzen espediente gutxiago izapidetzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntzen onuradun diren langile-kopurua	25	46



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten

2.- Araua

191/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematekoa, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egiteko dena, 2021. urterako. Dekretu horrek enpresaburu elkarteei eta erakunde sindikalei dirulaguntzak emateko modua arautzen du, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaitan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko..

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2003/09/0304890a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104685e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzeko dira, horien bitartez beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programaren aurrekontua 751.129 eurokoa izan da, ordainketa-kredituko 525.790 euro 2021eren kargura eta konpromiso-kredituko 225.339 euro 2022ko ekitaldirako. Zenbateko hori erabat banatu da erakunde sindikalen eta enpresaburu-elkarte eskatzaileen artean.

Aurretik zehaztutako diru-laguntzak emanez enpresarien elkarteek eta erakunde sindikalek beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko aurkeztutako prestakuntza-planak ordaindu dira.

Enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezzen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Espedienteak izapidetzea	10	10
Ikastaroak proposatutako helburuetara egokitzen direla kontrolatzea	850	4.155
Irakasleen egokitasuna eta parte-hartzaileen bertaratzeak gainbegiratzea	24.600	34.664



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2021eko ekitaldirako dirulaguntzak ematea

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei dirulaguntzak emateko deialdia..

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104684e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoa 1.034.978,00 eurokoa izan da, 827.982,00 eurokoa 2021erako ordainketa-kreditua eta 206.996,00 eurokoa 2022rako konpromiso-krediturako. Kopuru hori sindikatuen artean banatu da, ordezkariaren arabera.

Diru-laguntzak emanez sindikatuen hainbat jarduera ordaindu dira; horietatik, besteak beste, eta jarduera sindikalaren berezko gastuez gain, esparru soziolaboraleko prestakuntza-jarduerak nabarmendu beharrekoak dira, gehienbat erakundeetako kideei eskainiak. Jarduera sindikalak, zalantzarik gabe, eragin handia du gizartean, bai dagokion esparruagatik, bai barne hartzen duen pertsona sorta zabalagatik. Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira; horrenbestez, azken hori diru-laguntza zehazteko erreferentziako faktorea da, eta horrexek erabakitzen du deialdiaren diru-laguntzak emateko kontsignatutako kredituak banatzeko formula.

Diru Laguntzen Programan diru-laguntzen 20 espediente izapidetzea aurreikusita zegoen. Azkenik, diru-laguntzak 20 erakunde sindikalei eman zaizkie ordezkariaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 16.642 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 17.327tik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua	20	20